

Arduraz jokatzeko ingurumenari buruzko heziketa

Jarduera programa 2005/2006

**Haur eta
lehen
hezkuntza**



Paper birziklatuan inprimatua

www.mcp.es/educacion_ambiental/brote3.htm



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Ingurumen Heziketako Programa



1 Ingurumen Heziketako Programa

Helbidea: Imaz anaiak, 1
Orduetgia: 08:00etatik 14:30era
Kontsultak:
 ☎ 948 423 194
 ☎ 948 423 285
E-posta:
 ✉ jalzueta@mcp.es
 ✉ mvital@mcp.es
Faxa: 948 423 220
Web orria: www.mcp.es

2 Iruñerriko Mankomunitateko egoitza

Helbidea: Chinchilla jenerala, 7
 31002 Iruñea

Dituen asmoak?

Lortzea herritarrek ingurumenari buruzko kontzientzia izan dezatela, baita ingurumena eta horri lotuta dauden arazoetan interesa zein gaur egungo eta geroko arazoak bai indibidualki bai kolektiboki konpontzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta nahia izan ditzatela ere (Ingurumenari buruzko Heziketaren helburua. Belgradeko Ituna, 1975).

Ingurumenari buruzko esperientzia eta programak sustatzea, Iruñerriatik hurbil dagoen ingurunearen gaineko ezaguera eta analisi kritiko eta kreatiboa izatearren.

Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa erraztea, irakasle eta ikasleek programak praktikan jarri edo informazio-premiak ase ditzaten.

Lantzen diren edukiak?

Uraren ziklo integrala. Hornidura eta saneamendua.
Kontsumoa eta hondakinak. Birziklapena eta berreskurapena.
Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.
Ingurumenari buruzko heziketa.
Natur eta hiriko ingurumena.

Eskaintzen dituen zerbitzuak?

- **DOKUMENTAZIO ZENTROA: Kontsultak eta maileguak.**
- **AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA DIDAKTIKOA: IRAKASLE ETA IKASLEEI.**
- **MATERIAL DIDAKTIKOA DISEINATU, KOORDINATU ETA ARGITARATZEA.**
- **JARDUERAK**
 - **Bisitak Mankomunitateak kudeatzen dituen instalakuntzetara.** Hautatutako instalakuntzaren funtzionamendua ezagutzea xede nagusi dute, ikasleei ingurumena babesteko ego-kienak diren jarrera eta portaerei buruzko gogoetarako gonbitea luzatzen zaielarik aldi berean.
 - **Gelako tailerrak.** Lan-proposamen dinamiko eta parte-hartzailea, programa bakoitzeko edukiak oro har aztertzen dituen, norberaren ardura, batetik, eta, bestetik, jarrera eta jokabide aldaketa azpimarratuz.
 - **Jardunaldiak.** Instalakuntza baten bisitatik abiatuta, eduki zehatzetan sakondu nahi da, hala sentsibilizazioan nola ohiturak eta jarrerak sortzean arreta berezia jarritz.

2004-2005eko partaidetzaren emaitzak

Maila	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza	
	Ikastetxeak*	Ikasleak	Ikastetxeak*	Ikasleak
Ura	43	2.665	52	4.915
Hondakinak	-	-	19	1.262
Garraioa	-	-	9	1.129
GUZTIRA	43	2.665	56	7.306

* Iruñerriko ikastetxeak.

2005-2006ko nobedadea

“Bereizketa eta birziklatzea”
sentsibilizazio kanpaina

On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute

Iruñerriko auzo eta herri bakoitzean, hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen ari da pixkanaka; hori baliatuta, ikastetxe osoak birziklatze kanpainan parte hartzea lortu nahi da.

- **Eskatzeak:**
Bidali eskaera bakarra ikastetxe osorako. Koordinatzaileak edo ikasketaburuak buletinarekin bat doan eskaera fitxa espezifikoa igorriko du.



Haur
Hezkuntza
2. eta 3.
mailak

“USTEKABEKO BISITA”

Behar bezala jantzitako pertsonaia batek ikasleak ezustean harrapatuko ditu ikasgelan, eta mezu garrantzitsuak helaraziko dizkie. Erraz ezagutuko dute On Birziklote.

- Iraupena: 15'
- Gehienez ere 5 edo 6 saio, jolastorduak baino lehen.
- Ostegunetan.
- Ikasgelan.
- Opariak emanen zaizkie parte-hartzaileei.

Lehen
Hezkuntza
1. eta 2.
mailak

“IPUIN KONTALARIA”

On Birziklote, eleberrian inspiratuta, ikasleei hondakinak modu sailkatuan biltzeko edukiontzi berriak nolakoak eta zertarako diren azalduko die.

- Iraupena: 40'
- Gehienez ere bi saio, jolastorduak baino lehen.
- Ostegunetan, H.H.ko bisitarekin batera.
- Areto handi batean.
- Opariak emanen zaizkie parte-hartzaileei.

Lehen
Hezkuntza
3. mailatik 6.
mailaraino

“ANTZERKI ANIMAZIOA”

Eleberriko giroan inspiratutako antzerki ekintza bat da, ikusleei birziklatzeari buruzko jarrerara berriak jakinaraztean oinarritzen dena.

- Iraupena: 40'
- Saiok/ikastetxea: saio bakarra.
- Eguna: ostiral goizean.
- Tokia: jolastokian edo pilotalekuan (euririk botatzen badu).

- **Papera birziklatzeko tailerra.**
(L.H.ko 3. mailatik aurrera)
- **Zuhaitzak landatzea Ezkaban.**
(L.H.ko 3. mailatik aurrera)
- **Gelako tailerra.**
(L.H.ko 4. maila)
“Nik kontsumitzen dut eta 3 Bak praktikan jartzen”.
- **Bisita Gongorako Tratamendu Zentrora + arduraz kontsumitzeko jarduera.**
(L.H.ko 5. eta 6. mailak). Martxotik aurrera.
- **Bisita Gongorako Tratamendu Zentrora + jarduera + Garbigunea.**
(L.H.ko 5. eta 6. mailak). Martxotik aurrera.

Aldaketak ikastetxeko paper bilketan

Mankomunitatea hondakinak biltzeko eredu berria pixkanaka ezartzen ari da, eta eredu berri horrek eragina du ikastetxeetako paper bilketan. Ikastetxean dauden edukiontziak kendu, eta paper bilketa kaleko edukiontzi espezifikoa bidez egingen da.

Baliabideak:

- Aldez aurretik, informazio bilera bat egingen da zuzendaritza taldearekin.
- Ikastetxean hondakinak kudeatzeari buruzko aholkularitza.
- Laguntza baliabideak: paperontziak, eranskailuak, papera birziklatzeko tailerra, landatzeak eta kanpainatik eratorritako bestelakoak.
- Bisita Gongorako Tratamendu Zentrora.

Haur Hezkuntza / 2. eta 3. mailak

Ura Hornidura Programa



Bisita: Mendillorriko ur-biltegiak + “Nondik dator edaten dugun ura?” jarduera

Noiz: Irailean, urrian eta hirugarren hiru hilabeteetan.

Iraupena: 1,5 ordu.

Helburua: Lekuak eskura jartzen dizkigun baliabideak baliatzea, uraren garrantzia eta ura arazteko zein gure egunerokoan behar bezala erabiltzeko beharra baloratzen hasteko.

Edukiak:

- Ingurunea antzematea.
- Ura edateko ur bihurtzea.
- Urak txorrotaraino egiten duen bidea.
- Kontsumo arduratsurako erabilera eta ohiturak.

Jarduerak:

- Bisita antzinako ur-biltegietara.
- “Tantak dira zure lagunak” bideoa.
- “Nondik dator edaten dugun ura” jarduera.

Ordutegia: 9.30ean eta 11,15ean.


Parte hartzeko betebeharrak:

Aldez aurretik prestatzea.

Gehienez: Bi ikastalde (50 ikasle) bisita bakoitzeko.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz eta arratsaldez.

Laguntzarako unitate didaktikoa



“Barrillo eta ura” (Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailak)

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikasle bakoitzarendako koadernoak.
- Irakaslearendako gidaliburua.
- Uraren soinuak biltzen dituen CDa.
- Horma-irudiak eta lan musikalak.
- Margolan artistikoak.

Ikasle bakoitzarendako koadernoak:

Aldez aurretik prestatzeko materiala, Mendillorriara bisitak egin baino lehen. Aukerakoa.

Eskatzea:

Interesdunek jaso nahi duten koaderno kopurua idatzi beharko dute eskaera fitxan.



“Bereizketa eta birziklatzea”
sentsibilizazio kanpaina



On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute

Iruñerriko auzo eta herri bakoitzean,
hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen
ari da pixkanaka; hori baliatuta, **ikastetxe
osoak** birziklatze kanpainan parte hartzea
lortu nahi da.

USTEKABEKO BISITA

Behar bezala jantzitako pertsonaia batek ikasleak ezustean harrapatuko ditu ikasgelan, eta mezu garrantzitsuak helaraziko dizkie. Erraz ezagutuko dute On Birziklote.

- **Ordutegia:**

Ostegunean. L.H.ko 1. zikloarekin batera.

Jolastorduak baino lehenagoko saioak (9etatik 10:40era, gutxi gora-behera).

- **Iraupena:**

15' inguru ikasgela bakoitzeko.

Gehenez ere 5 edo 6 saio ikastetxe bakoitzeko.

- **Parte-hartzaileak:**

Har daitezkeen ahalik eta ikasgelarik eta saiorik gehien.

- **Eskatzea:**

“**On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute**” kanpainan parte hartu ahal izateko, koordinatzaileak edo ikasketaburuak buletinarekin bat doan **eskaera fitxa espezifikoa**, igorriko du. Gainerako mailekin batera eskatuko da.



* On Birziklotek opariak emanen dizkie parte-hartzaileei.



Lehen Hezkuntza Lehen zikloa / 1. eta 2. mailak

Ura

Hornidura Programa



Jardunaldia: “Mendillorri: zer egiten dugu urarekin?”

Noiz: Irailean, urrian eta 3. hiruilekoan.

Iraupena: 2,5 ordu.

Helburua: Urak hiri-zikloan egiten duen bidea ezagutu eta egunerokoan ura ez xahutzeko jarrera positiboa irakastea.

Jarduerak:

- Bisita eta entzunaldia antzinako ur-biltegiatan.
- “Uraren bidea” jarduera.
- “Tantak dira zure lagunak” bideoa.
- “Tantaz tanta” jarduera.

Parte hartzeko betebeharrak:

Aldez aurretik prestatzea.

Gehienez: Bi ikastalde bisita bakoitzeko.

Egunak: Asteko egun guztiak.



Bisita: Artetako iturburua + “Uraren ziklo naturala” jarduera

Noiz: Irailean, urrian eta 3. hiruilekoan.

Iraupena: 1,15 ordu.

Helburua: Artetako iturburuko paisaia interpretatu, uraren ziklo naturala ezagutu eta ura zaintzearen garrantzi eta beharraz sentsibilizatzea.

Jarduerak:

- Bisita iturburura.
- Barrilloren “Tantak dira zure lagunak” bideoa.
- Edukien laguntzarako jarduera.

Parte-hartzaileak: Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

Gehienez: Bi bisita egunero.

Egunak: Asteko egun guztiak.



Laguntzarako unitate didaktikoa



“Maite eta ura” (L.H.ko 1. zikloa)

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikasle bakoitzarendako koadernoak.
- Irakaslearendako gidaliburua.
- Uraren soinuak biltzen dituen CDa.
- Horma-irudiak eta lan musikalak.
- Margolan artistikoak.

Ikasle bakoitzarendako koadernoak:

Aldez aurretik prestatzeko materiala, bisitat egin baino lehen. Aukerakoa.

Eskatzea:

Interesdunek jaso nahi duten koaderno kopurua idatzi beharko dute eskaera fitxan.





“Bereizketa eta birziklatzea”
sentsibilizazio kanpaina

On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute



Iruñerriko auzo eta herri bakoitzean, hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen ari da pixkanaka; hori baliatuta, **ikastetxe osoak** birziklatze kanpainan parte hartzea lortu nahi da.

IPUIN KONTALARIA

On Birziklotek, eleberrian inspiratuta, ikasleei hondakinak modu sailkatuan biltzeko edukiontzi berriak nolakoak eta zertarako diren azalduko die.

• **Ordutegia:**

Ostegunean. L.H.ko 1. zikloarekin batera.

Jolastorduen osteko saioak (11:10etik 13:00etara, gutxi gorabehera).

• **Iraupena:**

40' saio bakoitzeko.

Gehienez ere bi saio.

• **Parte-hartzaileak:**

Gehienez ere bi ikasgela saio bakoitzeko (60 ikasle).

• **Tokia:**

Areto handi batean.

• **Eskatzea:**

“**On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute**” kanpainan parte hartu ahal izateko, koordinatzaileak edo ikasketaburuak buletinarekin bat doan **eskaera fitxa espezifiko**a igorriko du. Gainerako mailekin batera eskatuko da.

* On Birziklotek opariak emanen dizkie parte-hartzaileei.

Lehen Hezkuntza - Bigarren zikloa / 3. eta 4. mailak

Ura

Hornidura Programa



Jardunaldia: “Uraren hiri-zikloa” (Eugi, Urtasun + Mendillorriko programa), (L.H.ko 3. maila)

Noiz: 3. hiruhilekoan.

Iraupena: 4,5 ordu, goiz eta arratsaldez.

Helburua: Urak hiri-zikloan egiten duen bidea ezagutzea. Uraren balioaz eta ura zaintzeko beharraz sentsibilizatzea.

Parte hartzeko betebeharrak:

Aldez aurreko lana “Maite eta ura” U.D.

Gehienez: Bi ikastalde jardunaldi bakoitzeko.

Jarduerak:

- Bisita Eugiko urtegia.
- Bisita Urtasungo Ur Plantara.
- Atsedena - bazkaria.
- Programa Mendillorriko ur-biltegieta (arratsaldean):
 - Bisita eta entzunaldia antzinako ur-biltegieta.
 - “Uraren bidea” jarduera.
 - “Tantak dira zure lagunak” bideoa.



Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo Ur Planta + Mendillorriko ur-biltegiak Bisita: Artetako iturburua + Egillorko Ur Planta

Noiz: Eskaera fitxa kontsultatu.

Iraupena: Instalakuntzaren arabera. Kontsultatu eskaera fitxa.

Helburua: Instalakuntzaren funtzionamendu eta helburua ezagutu, eta uraren erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzea.

Edukiak:

- Ur hornidura eta kontsumoa.
- Kontsumo arduratsuko jarrera eta azturak.

Bisiten baliabaideak:

- Bideoa.
- Maketak.
- Bisita gidatua instalakuntzara.

Jarduera osagarri bat biltzen dute, azturei zein erabilera eragingarri buruz.

Parte-hartzaileak: irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

Egunak: Asteko egun guztiak.

Laguntzarako unitate didaktikoa



“Maite eta ura” (L.H.ko 1., 2. eta 3. mailak)

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikasle bakoitzarendako koaderno.
- Irakaslearendako gidaliburua.
- Uraren soinuak biltzen dituen CDa.
- Horma-irudiak eta lan musikalak.
- Margolan artistikoak.

Ikasle bakoitzarendako koaderno:

Aldez aurretik prestatzeko materiala, bisitak egin baino lehen. Aukerakoa.

Eskatzea:

Interesdunek jaso nahi duten koaderno kopurua idatzi beharko dute eskaera fitxan.



“Bereizketa eta birziklatzea” sentsibilizazio kanpaina

On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute

Iruñerriko auzo eta herri bakoitzean, hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen ari da pixkanaka; hori baliatuta, ikastetxe osoak birziklatze kanpainen parte hartzea lortu nahi da.



ANTZERKI ANIMAZIOA

Eleberriko giroan inspiratutako antzerki ekintza bat da, ikusleei birziklatzeari buruzko jarrera berriak jakinaraztean oinarritzen dena. Edukiontzi berri bakoitzean bota behar diren produktuak azpimarratzen ditu.

- **Ordutegia:**
Ostiralean. 12:00etan, gutxi gorabehera.
- **Iraupena:**
40' saio bakoitzeko. Saio bakarra 3. ziklo osorako.
- **Parte-hartzaileak:**
Gehienez ere 300 pertsona.
- **Tokia:**
Jolastokian (eguraldi ona egiten badu), pilotalekuan (euria botatzen badu).



- **Eskatzea:**
“On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute” kanpainen parte hartu ahal izateko, koordinatzaileak edo ikasketaburuak buletinarekin bat doan **eskaera fitxa espezifiko**a igorriko du. Gainerako mailekin batera eskatuko da.

“NIK KONTSUMITZEN DUT ETA 3 BAK PRAKTIKAN JARTZEN” GELAKO TAILERRA (L.H.KO 4. MAILA)

Helburua: Hondakinak sortzean dugun erantzukizuna aitortu, eta kontsumo arduratsurako ohiturak sustatzea.

Tailerraren baliabideak:

- Ikasleek ekarritako hondakinak.
- Lokuzioa.
- Kontsumo arduratsuari buruzko jarduera.

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak:

Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde bat tailer bakoitzeko. Bi tailer elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztietan. Goizez/arratsaldez.

PAPERA BIRZIKLATZEKO TAILERRA

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde/ikasgela bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde/ikasgela bat tailer bakoitzeko. Bi tailer elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz edo arratsaldez.

ZUHAITZAK LANDATZEA ETA PAPERA BERRESKURATZEA (EZKABAN)

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) landatze bakoitzeko. Bi landatze elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztiak. Bigarren hiruhilekoan soilik.

Lehen Hezkuntza Hirugarren zikloa / 5. eta 6. mailak

Ura

Hornidura Programa



Erakusketa "Uraren erabilera eragingarria" Egillorren.

Bisita: Artetako iturburua + "Lupeko urak" Interpretazio Zentroa

Bisita: Artetako iturburua + Interpretazio Zentroa + Egillorko Ur Planta

Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo Ur Planta + Mendillorriko ur-biltegiak

Bisita: Arazuriko araztegia + "Nik ez dut ura kutsatzen" jarduera

Noiz: Eskaera fitxa kontsultatu.

Iraupena: Instalakuntzaren araberakoa. Kontsultatu eskaera fitxa.

Helburua: Instalakuntzaren funtzionamendu eta helburua ezagutzea eta uraren erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzea.

Edukiak:

- Ur hornidura eta kontsumoa
- Arduraz kontsumitzeko jokabide eta ohituak.

Bisiten baliabideak:

- Bideoa edo diaporama.
- Maketak.
- Instalakuntza bisitatzea.

Bisita batzuek jarduera osagarri bat biltzen dute, azturari zein erabilera eragingarriari buruz.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

Bisita bat edo bi eguneko, iraupenaren arabera.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz eta arratsaldez.



Bisita: Gongorako Tratamendu Zentroa + kontsumo arduratsuko jarduera

Noiz: Martxotik aurrera.

Helburua: Gongorako Tratamendu Zentroaren funtzionamendua ezagutu, eta gaikako bilketa eta jokabide egokiak sustatzea, kontsumitzaile arduratsu gisa.

Edukiak:

- Edukiontzi berriak, gaikako bilketarako.
- Hondakinak kudeatu eta tratatzea.
- Kontsumo arduratsua.

Bisitaren baliabideak:

- Ontziak aukeratzeko Planta berria.
- Energia berreskuratzen duen zaborteziaren ikuspegi panoramikoa.
- Maketa eta bideoa.
- Edukien laguntzarako jarduera.

Iraupena: 2 ordu.

Parte-hartzaileak: Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

Bisita: Gongorako Tratamendu Zentroa + jarduera + Garbigunea

Noiz: Martxotik aurrera.

Helburua: Gongorako Tratamendu Zentroaren funtzionamendua eta hondakin berezien (toxikoak, etxeko hondakin bereziak...) bilketa gunea ezagutzea.

Baliabideak:

- Gongorako Tratamendu Zentroko bisitakoak.
- E. Leclerc-eko aparkalekuko garbigunea bisitatzea.

Iraupena: 3 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko. Bi ikastalde (60 ikasle).



“Bereizketa eta birziklatzea” sentsibilizazio kanpaina “On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute”

Iruñerriko auzo eta herri bakoitzean, hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen ari da pixkanaka; hori baliatuta, ikastetxe osoak birziklatze kanpainen parte hartzea lortu nahi da.



ANTZERKI ANIMAZIOA

Eleberriko giroan inspiratutako antzerki ekintza bat da, ikusleei birziklatzeari buruzko jarrera berriak jakinaraztean oinarritzen dena. Edukiontzi berri bakoitzean bota behar diren produktuak azpimarratzen ditu.

• **Ordutegia:**

Ostiralean. 12:00etan, gutxi gorabehera. Arratsaldez egiteko aukera.

• **Iraupena:**

40' saio bakoitzeko. Saio bakarra 2. zikloarekin batera.

• **Parte-hartzaileak:**

Gehienez ere 300 pertsona. Jolastokian (eguraldi ona egiten badu), pilotalekuan (euria botatzen badu).

• **Eskatzea:**

“On Birziklotek eta Santxo Zikinek ikastetxea bisitatzen dute” kanpainen parte hartu ahal izateko, koordinatzaileak edo ikasketaburuak buletinarekin bat doan **eskaera fitxa espezifiko**a igorriko du. Gainerako mailekin batera eskatuko da.

ZUHAITZAK LANDATZEA ETA PAPERA BERRESKURATZEA (Ezkaban)

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) landatze bakoitzeko. Bi landatze elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz eta arratsaldez. 2. hiruhilekoan soilik.

PAPERA BIRZIKLATZEKO TAILERRA

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde/ikasgela bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde/ikasgela bat tailer bakoitzeko. Bi tailer elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz edo arratsaldez.

Lehen Hezkuntza Hirugarren zikloa / 5. eta 6. mailak

Garraioa eta mugikortasun iraunkorra Programa



GELAKO TAILERRA

“Banoa eta banator”

Helburua: Hiri-eremuetan joan-etortzeko modu desberdinak eta euren ondorioak aztertzea, jendearrekiko eta ingurumenarekiko begirunetsuena hautatzearen.

Edukiak:

- Gure ohiturak eta eskualdean zehar joan-etortzeko moduak.
- Ondorioak ingurunean eta jendearren bizi kalitatean.
- Mugikortasun iraunkorra.
- Hiri garraioa Iruñerrian.

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde/ikasgela bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde/ikasgela bat tailer bakoitzeko. Elkarren segidako bi tailer eguneko.

Egunak: Asteko egun guztietan. Goiz eta arratsaldez.

*** Gelako tailerretan parte hartuko duen ikastalde/ikasgela bakoitzari autobusez 60 bidaia egiteko moneta-txartel bana emanen zaio.**

* Mankomunitatearen, Iruñeko Udaleko Energia Agentziaren eta EHN-ren Lankidetzeta hitzarmen bati esker, badago hiru eskola-eskaintzen Programa batera eskatzeko aukera.

AUTOBUSAREN MAGIA

“Eskualdeko Hiri Garraioaz bidaiatuz”

Jardueraren deskribaketa: Ikastaldeak ibilbide didaktikoa egiten du hiribus batean.

Helburua: Edukiak barneratzea, batetik, eta, bestetik, eskualdeko hiri garraioan bidaiatzen dugunean arau, pertsona eta ingurunearekiko jokabide begirunetsuak ekarriko dituzten ohitura eta jokabideak sustatzea.

Edukiak:

- Hiri garraioaren erabilera egokia.
- Eskualdeko Hiri Garraioa.
- Zirkulazio arazo batzuk antzematea.

Betebeharrak: Gelako tailerretan parte hartzea.

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartzaileak:

Ikastalde/ikasgela bat saio bakoitzeko. Bi saio eguneko, gehienez.

Egunak: Ostiraletan soilik.

LAGUNTZARAKO BALIABIDEAK

“Garraioko motxila”

Baliabideak:

- CD bat (soinu-eskala eta soinu-bidea).
- Pultsu-kontagailua.
- Nibela, metro-zinta.
- Iruñerria eta eskualdeko hiri garraioa erakusten dituen horma-planoak.

• Eskatzea:

Motxila maileguan uzten da, astebetez.

Unitate didaktikoa:

“Joan-etorrian dabilen eskualdea”

